

HIZTEGIA

Hiztegiaren erabilera onerako klase-hasieran ikasleei banatzea eta, hitzak banan-banan hartuta, haien esanahiari buruz mintzatzea proposatzen da.

Gida didaktikoaren barruan aurkituko duzuen hiztegi teknikoak bai bideoan teoria agertzerakoan, bai inguru profesionalean erabiltzen diren oinarrizko hitzez osatua dago.

LIBURUAK

Proposatzen diren liburuek zerikusi estua daukate kameraren eta argien munduko gaiekin eta ikasgaiekin, bai alderdi artistikoa jorratu nahi duenak erabiltzeko, bai alderdi teknikoa jorratu nahi duenak erabiltzeko.

Errealizazioa deitu dugun atalean agertzen diren liburuak sakonagoak dira, eta gaien gehiago sakondu nahi duten ikasle eta irakasleei zuzenduak daude.

BIDEO KAMERA ETA ARGIZTATZEKO TRESNERIA

2. KAPITULUA

BIDEO KAMERAREN OBJEKTIBOA

Sarrerako hitzak

Kalitatezko irudiak lortu nahi baditugu, ezinbestez, bideo-kameraren objektiboa erabiltzen ikasi behar dugu. Izan ere, objektiboa nolakoa, irudia halakoa aterako zaigu.

Lantegian, fokatzea eta koadroa zehaztasunez egiten lagunduko diguten hainbat ariketa praktiko egingo ditugu.

Atalak

- Aurkezpena
- Objektibo-motak
- Diafragmaren irekidura
- Ikus-eremuaren sakonera
- Esposizioa
- Fokatzea
- Zoom objektiboa

-LANTEGIA ATALA: fokatze- eta enkoadratze-ariketak -I-

LANTEGIA: fokatze- eta enkoadratze-ariketak -I-

Edozein motatakoa delarik egin nahi dugun ikus-entzunezkoa, beti, pertsona multzo handi baten jarduna eta laguntza behar izango dugu: talde tekniko batena eta talde artistiko batena. Talde tekniko horretako partaidea da kamera-operadorea. Haren trebetasuna erabakigarria da ikus-entzunezko baten moldaketan. Ikus ditzagun hainbat ariketa, gehienak fisikoak, bideo-kameraren ohiko mugimenduak praktikatzeko.

1.- Hasteko, joan-etorriko panoramika horizontala egingo diogu azalera lau bati. Marrazkidun pareta bati, esaterako. Objektiboan angelu handiko kokagunea erabiliko dugu, eta, bide guztian zehar, koadroan agertzen dena fokaturik izango dugu. Bideo-kameraren lastertasuna geldoa eta konstantea izan dadin saiatu behar dugu.

Jarraian, objektiboaren beste kokagune batzuk aukeratuko ditugu, gero eta itxiagoak. Horietako kokagune bakoitzarekin panoramika bana egingo dugu, lastertasun berari eutsiz eta koadroan agertzen dena fokaturik edukiz panoramikak irauten duen bitartean.

2.- Orain, aurreko ariketarako aipatu ditugun iradokizunei jarraikiz, goitik beherako eta behetik gorako panoramikak egingo ditugu.

3.- Koadroan bi pertsonaia dauzkagu, bata gertuago eta bestea urrutiago. Gertuen dagoena fokatuko dugu lehenengo, eta ikusi; ondoren, bideo-kamera mugitu eta urrutien dagoena fokatuko dugu. Hori eginda, atzera, lehenengo pertsonaia hartuko dugu.

4.- Orain bideo-kamera mugituko dugu, haren objektibotik bata gertuago eta bestea urrutiago dauden bi pertsonaia erakusteko. Hasteko, gertuen dagoena fokatuko dugu eta fokatze-uztaian dagokion marka jarriko; gero, bideo-kamera mugitu, bigarrena fokatu, eta fokatze-uztaian bigarren marka jarriko dugu. Orain badakigu pertsonaia bakoitzak eskatzen duen foku-distantzia. Has gaitzen. Mugimenduaren hasieran lehenengo pertsonaia ongi fokaturik eduki behar dugu; eta, hura koadrotik desagertzean, poliki eta presarik gabe, fokatze-uztaiari eragingo diogu bigarrena agertzean ongi fokaturik ager dadin.

5.- Bukatzeko, pertsonaiak fokatu ondoren, panoramikak eta zoomak aldi berean egitea eskatzen duten planoak egingo ditugu.

HIZTEGIA

Diafragma-irekidura: objektibo barruko mekanismoa, erdian diametro aldakorreko zulo bat uzten duten gainjarritako laminatxo osatua.

Foku-distantzia: bideo-kameraren objektiboak infinitua fokatzen duelarik, objektiboaren lentearen erdia eta irudia eratzen den puntu nodalaren edo foku-planoaren artean dagoen distantzia da; milimetrotan adierazten da.

Gradutan ere adieraz daiteke, objektiboaren ikusmen-eremua zehazten duen angeluari dagokion gradutan, alegia.

Esposizioa: objektiboa zeharkatuz bideo-kameraren sensorera iristen den argi-kantitatea. Irudiak argi eta garbi jasotzen duenean gogoko dugun tonu-gama, esposizio egokiz hartu dela esaten da

Objektiboaren argitasuna: irudi bat ganoraz eratzeko, objektiboak jaso behar duen gutxieneko argi-kantitatea adierazten duen datua.

Eremu-sakonera: argi eta garbi ikusten den eszenako alderdiari esaten zaio eremu-sakonera. Eremu-sakonera fokaturiko elementuaren atzealdera heren bat luzatzen da eta haren aurrealdera bi heren. Gainera, eremu-sakonera hiru faktoreren araberakoa izaten da: objektiboaren foku-luzeraren araberakoa; erabilitako diafragmaren araberakoa eta objektiboaren eta fokatze-gunearen arteko distantziaren araberakoa.

Objektibo motak: normalak, angelu handikoak eta teleobjektiboak.

LIBURUAK

Bideo-kamera eta argiztatzeko tresneria

MILERSON, Gerald: *Cómo utilizar la cámara de video*, Gedisa, Bartzelona, 1998

SWUAISON, G eta LYVER, Des: *La iluminación en video, Principios básicos*. Gedisa, Bartzelona, 1997

MILERSON, Gerald: *Iluminación para televisión y cine*, IORTV, Madril, 1996

ARONOVICH, R.: *Exponer una historia. La fotografía cinematográfica*, Gedisa, Bartzelona, 1997

Errealizazioa

CHESHIRE, David: *Manual de cinematografía*, Blume, Madril, 1981

FELDMAN, Simon: *La composición de la imagen en movimiento*, Gedisa, Bartzelona, 1995

FELDMAN, Simon: *La realización cinematográfica*, Gedisa, Bartzelona, 1997

Internet

www.imagendv.com

www.quesabesde.com


SERIEA OSATZEN DUTEN KAPITULUAK

- 1.- GRABATZEKO OINARRIZKO TRESNERIA
- 2.- BIDEO KAMERAREN OBJEKTIBOIA
- 3.- MUGIMENDUA IRUDIAN
- 4.- ARGIA
- 5.- ARGIZTATZEKO OINARRIZKO TRESNERIA
- 6.- ARGIZTATZEKO TRESNA ETA OSAGARRIAK
- 7.- ARGIZTAPENAREN OINARRIZKO PRINTZIPIOAK
- 8.- NOLA ARGIZTATU KANPOALDEAN
- 9.- ARGIZTATZEKO TEKNIKA BEREZIAK
- 10.- PRODUKZIOA ETA ENTSEGUAK
- 11.- GRABATZEN

ekoizlea:

iadi

Banatzailea:



Getaria, 18-behea, 01010-Gasteiz
Tel-faxa: 945200608
artez@ikusentzunezkoa.euskalnet.net

LG.- VI-33 / 06

HEZKUNTZA,
UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILAK
ONETSIA
2006-03-06